



Peio Santa Cruz - Maite Landaluce
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Josu Landa 2

Sarrera 2

Odolbildua

Kokapena 3

Gaia 3

Argumentua 3

Istoria 4

Egituraketa 5

Pertsonaiak 5

Baliabideak 6

Iritzia 7

Bibliografia eta webgrafia 8

JOSU LANDA

Josu Landa Altzan (Gipuzkoa) jaio zen, 1960an. Euskal Filologia ikasi zuen eta *Susa* literatura aldizkariaren eta argitaletxearen sortzaile-etako bat izan zen. *Argia* aldizkarian eta *Euskaldunon Egunkaria*-n artikuluak idatzi ditu. 1995. urtetik aurrera teknologia eta



Interneten inguruko lanetan egon da murgilduta. Euskal idazlea da eta hainbat obra argitaratu ditu: 1979an *Ni eta nitarrak* (poesia), 1980an *Haizearen itzalak* (poesia), 1983an *Gerraondoko poesiaren historia* (saiakera) eta 2002an *Odolbilda* (nobela).

SARRERA

Odolbilda Josu Landak idatzitako lehen nobela da eta Joxemi Zumalabe (1906-1992) *Argia* aldizkarian Josuren lankidea izan zenaren oroimenez dago idatzita. Nobela Bilboko ibaiaren ondoko herrietan dago girotuta 50eko hamarkadan eta gerra ondoren Portugaleten eta haren inguruetan zegoen giro gris eta iluna irudikatzen du. Intrigazko nobela da, baina, argumentuak eleberri beltz baten ezaugarriak ditu: trafikatzaileak, kontrabandistak, boxeo borrokak, polizia gaizkileak...

Lau pertsonaia nagusi ditu: Mentxu, Santos, Antonia eta Joselu. Antoniak eta gehienbat Joseluk lehenengo bien iragana ez ezagutzeak euren artean arazoak sortuko ditu.

ODOLBILDUA

KOKAPENA

Denbora aldetik, kontakizun hau XX. mendearen erdialdean kokatu dezakegu, 50eko hamarkada aldera, hain zuzen ere. Istorioa Euskal Herriko herri batean dago kokatuta, Bilboko ibaiaren ezker aldeko Portugaleten. Ekintza gehienak zonalde honen inguruan gertatzen dira, hala ere, Euskal Herriko beste hiri batzuetara ere mugituko dira pertsonaiak. Esate baterako, Mentxuk trenbidea hartzen du Bilbora abiatzeko.

GAIA

Gerraondoa: kontrabando eta polizia korruptoen garaia.

ARGUMENTUA

Mentxu eta Santosen abenturan, Santos kartzelatu egingo dute eta horren ondorioz hainbat ekintza burutu beharko dituzte ondoko kideek. Mentxuk, ahalegin eta bi egingo ditu atxilotua izan dena kartzelatik atera ahal izateko. Bitartean, Antoniak eta Joseluk garrantzi handia izango dute gertakizunetan. Gazteak ez die bere kideei sinestuko eta gauzen zergatia bilatzen hasiko da, horrek dakartzan arazoak kezkatuta. Gainera, trama honetan, polizia ekintza ilegalean arituko da eta arazo handiak izango dituzte.

ISTORIOA

Santos eta Mentxu kaira abiatu dira itsasontzia hartzeko. Pedriñok, Santosen nagusiak, hitzordu bat antolatu dielako Mentxurekin hitz egin nahi duen morroi batek eskatuta. Honek Indotxinara joan nahi zuela kontatzen die, baina ezin duela poliziek harrapaturik dutelako. Bere esanetan, poliziek xantaiatu eta beraien bandan infiltratzera behartu zuten haientzat lan egiteko. Hori zen bide bakarra kartzelari ihes egiteko. Mentxuk ez du onartzen eta itsasontzitik aterarazi egiten du. Hurrengo eguneko egunkarian Algortan hilketak bat egon dela irakurtzen dute, baina ez dakite nor izan den hiltzailea.

Egun batzuk geroago, Santos lotan dagoela atxilotu egiten dute. Antonia oso urduri jartzen da eta Mentxuri laguntza eskatzen dio. Mentxu Pedriñorekin hitz egitera doa eta abokatu bat kontratatzeko zeregina ematen dio. Santos Algortako hilketak leporatu diote eta hildakoa Mentxurekin hitzordua eskatu zuen morroia zen. Santos askatu egiten dute, baina Joseluk zerbait arraroa susmatzen du eta ez da Mentxurekin gehiegi fidatzen. Hori dela eta, gizon batek Mentxuri eta bere aitari buruzko istorioak kontatzen dizkionean eta argazki-kamera bat ematen dionean Mentxuren gelari argazkiak egiteko, onartu egiten du. Lehenik, La Arboledara doa eta hango medikuari pakete bat emango dion itxurak egiten ditu, bere aitak emandakoa dela esaten du, baina ez da egia. Horrela, Santosek eta Mentxuk ezkutuko negozioren bat dutela ziurtatzen du. Bueltatzean, Mentxuren gelan sartzen da eta ate bat irekitzean, gorputz asko ikusten ditu etzanda. Argazki-kamera atera eta argazkiak ateratzen ditu, baina Mentxu ailegatzen da eta ikusi egiten du. Errieta egin ondoren Santosekin hitz egiten du eta gauzak argi uzten dizkiote Joseluri.

Mentxu Fonseca lagun zaharrarekin geratzen da egun batean. Hilda zegoela pentsatzen zuten, baina Santos atxiloturik dagoen bitartean konturatzen da ez dela egia. Berarekin gaua pasatu ondoren Mentxuk mesede bat eskatzen dio: itsasontzi batzuk kontratatzea “bere izenean” eta poliziak negozio ilegalekin aritzen direla pentsatzea hori egia izan ez arren. Joseluk boxeoko txapelketa zuen egunean egingo zuten hori guztia.

Bera finalera iristeko edonolako arazorik izan gabe, bere entrenatzaileari ordaindu egiten diote. Finalera iristen da baina galdu egiten du Zarandonaren aurka. Garaikurrean kontrabandoko zerbait zegoen baina despistatzeko zen, itsasontzietan benetako kontrabandoa zegoelako.

EGITURAKETA

Kapituluka egituratuta dago nobela hau. Pasarte guztiak ildo nagusiaren parte dira eta gertakizunak pixkanaka-pixkanaka azaltzen ditu. Horrela, Santosi eta honen kideei gertatutakoa zer den ulertzea ahalbidetzen du irakurlea. Horretarako, eleberri honen egileak egitura lineala erabili du istorio guztian, hau da, ez du denboran jauzirik egiten.

PERTSONAIAK

- **Mentxu.** Hari guztiak mugitzen dituen pertsona da. Antonia, Santos eta Joselurekin bizi da Portugaleten. Oso emakume azkarra eta zuhurra da eta badaki beste pertsonak ondo manipulatzeko bere helburuak lortu ahal izateko. Bizitza gogorra izan duela dirudi, gaztea zenean komunisten bandora pasatu zenez bere gurasoekin zituen harremanak moztu zituen, haiek ez zutelako hori onartzen. Bere familia Neguriko familia aberatsa da eta ordutik ez dauka haiekin inolako kontakturik, Eusebiak, botikako bezero batek kontaktzen diona izan ezik.
- **Santos.** Antoniaren senarra eta Joseluren aita da. Biekin eta Mentxurekin batera Portugaleten bizi da, botika eta ostatua den eraikin batean. Mentxu gerra garaian ezagutu zuen, biak komunisten alde borrokatzen ari zirenean. Asko zor dio Mentxuri, esaten duen lez, larrialdi askotatik atera duelako. Adibidez, kartzelatik ateratzen du Algortako hilketagatik atxilotu ondoren.

- **Antonia.** Santosen emaztea da eta Joseluren ama. Portugaleten Mentxurekin batera duen botikan eta ostatuan lan egiten du eta han bertan bizi dira laurak. Ez da pertsona garrantzitsua istorioan, ez du ekintza garrantzitsuetan parte hartzen. Botikan eta ostatuan lan egiten duela ikusten da, baina ez du ezer gehiagorik ia egiten. Beste guztiek (Mentxu, Joselu eta Santos) gauzak ezkututzen dizkiete.
- **Joselu.** Antonia eta Santosen semea da. 16 urte ditu eta boxealaria da. Ez du bere aitaren iraganaren berri handirik eta hori dela eta, Mentxu eta berarekin hainbat gaizki-ulertze ditu. Bere amarekin ere ez du konfiantza askorik eta, horregatik, bere aita atxilotzean Antoniak Mentxuri eskatzen dio bera izatea Joseluri aitaren atxilotetaren berri ematen diona. Horregatik, Mentxu izango da gazteari gertatutakoa zer izan den azaltzen dion pertsona.

BALIABIDEAK

Eleberri honetan gehienbat narrazioa eta elkarrizketa erabiltzen dira baliabide gisa. Baina, sentimenduen deskribapenak indar eta garrantzi handia du. Zati batzuk astunak izan arren, idazteko orduan estilo bikaina erabiltzen du. Idazleak eleberriak zehar baliabide ugari erabili ditu, esate baterako, deskripzioa:

Minutu batzuk egin zituen espaloiaz bestaldeko etxe-atariko koska belunean jesarrita. Gustukoak zituen bere etxearen kontenpla-ziozko patxadaldi labur haiek, atsegin zuen jabegoarekiko harrotasun nardagarria. Aurrean zuen etxea berea zuen, eta ez zekien zer zuen bereago harrizko eraikin zaharkitu hartan, beheko zati osoa hartzen zuen botika, ala goiko solairuetan zegoen ostatura.

Baina konparazioak eta metafora baita ere, denak modu egoki batean erabilia. Gainera, eleberri honetan erabilitako hizkuntza euskara batua da, edonork erraz ulertzeko modukoa. Hala ere, batzuetan hika erabiltzen du.

Horrez gain, istorioaren hasieran, arazoak Areetako elizako kanpaiak jotzen ez dituenen hasten dira eta obra kanpaien hotsa entzutean amaitzen da. Soinu horiek giro grisa eta tentsioa areagotzeko balio dute.

Narratzaile orojakilea erabiltzen du. Honek, pertsonaiei buruzko guztia ezagutzen du, bere iragana baita ere. Badaki zeintzuk diren pertsonaien pentsamenduak, iragana, sentimenduak...

IRITZIA

Eleberria 50eko hamarkadan, idazlea jaio baino lehenago girotuta egon arren nahiko erreala dirudi deskripzioak oso ondo eginda daude eta. Horregatik, garaiari buruz ondo dokumentatu dela ondoriozta dezakegu. Esan bezala, deskripzio asko daude eta nahiko onak dira. Honek, garai horretako giro grisean murgiltzen laguntzen digu, gaur eguneko giroarekin alderatuz gero oso desberdina dela argi ikusten den arren, eleberria irakurtzea erraza egin zaigu.

Intrigazko eleberria da eta amaierara arte ez dugu trama guztia ulertzen. Pixkanaka-pixkanaka datu berriak ematen dizkio irakurleari eta horiei esker amaieran gertatutakoa zer izan den argi ulertzen da. Beraz, oso ondo egituratuta dagoela esan genezake eta intrigazko obra on baten egitura horrelakoa izan behar duenez antolaketa egokia egin duela iruditzen zaigu.

Gainera, pertsonaiak ondo txertatuta daudela esan daiteke. Adibidez, Mentxu hasieran lekuz kanpo dagoela dirudi, baina, eleberria irakurtzen den heinean garrantzia hartzen joaten da. Azkenean behar-beharrezkoa izango den papera izango du. Honi esker, istorio guztia ulertzea ahalbidetuko digu.

Egia da, hasierako zatian agertzen diren deskripzioak oso sakonak direla eta astunak bilakatu ahal direla. Esate baterako, adibide eta ezaugarri gehiegi ematen dituenen. Hala ere, liburua osotasunean hartuz gero oso interegarria eta aproposa iruditu zaigu.

Hau guztia kontuan harturik eta, gainera, Josu Landaren lehen eleberria dela jakinik, obra guztiz gomendagarria da intrigazko edo poliziazko eleberriak gustatzen zaizkion ororentzat. Gainera, irakur erraza denez, oso gustura irakurtzen da eta ez da batere astuna egiten.

BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

Odolbilda, Josu Landa. Susa.

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/odolbilda/odolbilda.pdf>

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>

http://atalak.net/_Media/odolbilda.jpeg

http://eu.wikipedia.org/wiki/Josu_Landa

<http://www.susa-literatura.com/>

<http://zaldiero.armiarma.com/irudiak/arg/117-Landa.jpg>

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/152926>

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/77728>

<http://kritikak.armiarma.com/>

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/odolbilda/odolbilda.jpg>